

PROTESTANTEAK

Andra Mariaren oiñetan

Fr. José Azurmendi.
Werl (Alemania).



Protestanteen eta katolikoek arteko aldeak aitatzean, berealaxe jotzen dugu topiko onetara: protestanteak umezurtz daude. Ama Birjiña baztertean bere gizatasuna, beroa kendu diote erlijioari. Arratsalde batez Soest-en gertatu nintzanean, Andra Mariaren elizara joan nintzan, ango pintura ta eskultura ederrekin atsegitera. Eliza au, Andra Maria-ren ohorezkoa, protestanteen eskuetan dago. Beifiola elizako leku nagusian zegoen Ama Birjiñaren irudia, urte asko direla, katolikoek eraman zuten, protestanteak nagusitzerazijoazkionean. Werlen dago orain. Alegia, Werl-eko Andra Maria, Westfale-n ain ezaguna. Baiña an gelditu ziren beste ainbeste ta ainbeste pintura, Maria-ren bizitza gogorazitzen dizkigutenak.

Zer da zuentzat Ama Birjiña?, galdetu nion luterotar bati. Eta bizkarrak jasoz, irribarre batekin erantzun zidan.

Lutero izandu zen ezkeroko bideak luzeak izan dira. Gaurko protestanteek ez diote, geienbat, jaiera aundirik Andra Mariari. Protestanteen postura au joan den eunalditik onerakoan gogortu da batez ere: Eliza katolikoaren etsaigoz alde batetik, eta liberalismoak eta arrazionalismoak teologia- ren adar au destaiñatzen zutelako bestetik. Orrela ba, Lutero-k nolabait ametitzen zuen Sorkunde guztiz garbia (artean katoliko askok ukatzen zuten garai batean gaifera!) ta Bullinger-ek onartzen zuen Maria-ren eriotze osteko jasokundea, adibidez, gaurko protestanteek ez dizkigute aitortzen.

Protestante askok ez dute ongi ezagutzen

katolikuok Andra Mariaz dioguna. Neska batekin mintzatzen nengoela, guk Maria **adoratu** egiten dugun iritzia bota zidan. Eta guk, aldez beste, ez dugu aien egiazko irakaspena ezagutzen. Eta okerrago dena, azken gizaldiko aize Andra Mariaren kontra-koekin, protestante jendearen Ama Birjiñarekiko ideia denak orbel moduan galduak direla dirudi. Gaurko protestantismoa, izan ere, Max Thurian-ek berak aitortzen duenez, ez dabil "erreformatzaileen" tradizioaren arabera.

Protestanteen artean joera guztiz desberdina agiri zaizkigula oartu bear dugu, lehenengo. Kalbino, puntu onetan ere, Lutero baiño erabatekoago da, estremistagoa. Ez du Andra Maria-ren santutasuna ukatzen, baiña naiago zuen aren amatasunaz ixildu, ez baiuzen mariologiak, bere buruz (berez) batere arduratzen. Ura zen bezain otza eta illuna izaki, olako "beratasunak" igui ematen zioten Kalbino-ri. Gutxi gora behera, geometriazko erlijioa nai luke arek. Lutero-k, berriz, beti gorde zuen Andra Maria gure amarekiko xamurtasun ta esker onik gozoena. Ta nola gorde! Geroagoko (ta lehenagoko) katolikoek batzuen xamurtasun biguñetik ere lantzen ziren Lutero-ren biotza den fedezko ta grifiazko labean-eta...

Egia da Lutero-k eta Eliza katolikoak ez dutela berdin ulertzen amatasun au. Bitartekotasunaren auzi biurria dago tartean. Lutero-k ezin aitor dezaioke Ama Birjiñari arartekotasunik, Jesukristo baitugu —aren iritzian— bitarteko **bakar**.

Romantikoko utsak generala esaten zidan bein beste protestante etorkiko batek: Andra Maria gure ama... Romantizismo onek etzuen lotsatzen ez larritzen Lutero: "Oi, bai, auxe da aingeruak dion poz aundia! Jainkoaren kontsolamendu ta ontasun zoragarrikoa da gizona olako altxorren jabetasunaz, arrotu ahal izatea: Maria bere egiazko ama du, Kristo anaia, eta Jainkoa aita" (Kirchenpostille).

Lutero-k etzuen Andra Mariaren amatasuna ukatu nai, ta etzuen ukatu. Baiña asko moduzko deboziok Jesukristo-ren lehenengotasuna arriskura zekarrela iruditzen zitzaion. San Alberto Aundiarena zela uste izandako "Maria super Missus est" idazkiarekin asi zitzaigun mariologiaren gainberan botatzen ziren gelegikeriek atzera eragi-

ten zioten Lutero-ri. Alemaniako "erreformatzaileak" ezin zuen begi onez ikusi mariologiak zerabilen bide okerra: aitatutako liburuak Maria-ren grazia zazpi sakramentuen grazia bilduma egiten du, apaizgoarena (ta oso-osorik) ahaztu gabe. Mariak, gizonen jakituri ta aingeruen doaez gaitiera, apaizgoaren grazia osoa, aunditasuna, eta ahalmenak! lituzke.

Eta Lutero-k Jesukristo-ren lehenengotasuna ta bitartekotasun bakarra salbatu nai izan zituen. "Egi egitan gure ama dugu Maria. Baiña emen oñfarritu naiko bagenu, Jesukristo-ri bere aunditasuna ta egitekoa kendu ta aren amari emanez, Jesukristo-ren nekeak ukatuko genituzke". Bildur onek eraman zuen Kalbino ere osta-osta ukatzearen ertzeraifio...

Bildurrak bildur, Lutero-k etzuen ahaztu kristauok ama dugula, Kristo-ren ama denez, Andra Maria. Azkenera artean jarraitu zuen Andra Maria-ren jaiak ospatzen. Ama Birjiñaren gorasarrez Lutero-k egindako itzaldietan azkenekoa il zen urte berekoa dugu. Zergatik utzi dituzte geroko luteratar anaiak bai debozio au ta bai jaiak? Lutero-k argi aitortzen zuen: "Ama bat daukagu eduki; ta edukitze onen poza, gure ama (lurrekoa) benetakoa besarkadaz besarkatzea baiño pozgarriago da".

Aimbeste denpora moko moko egon ondoren azkenean alkarri urbiltzen asi generala dirudi. Itxaropen aldi ederrean sartu generala esan diteke, Andra Mariari dagokionaz. Ala, Asmussen luterotarrak Maria-ren nolabaiteko arartekotasuna beintzat onartzen du. Eta Max Thurian, Taizé-ko anaia-aren lanak argi asko egin du. Protestantismoaren aldetik biok. Katolikoek egintzak begiratuta, protestanteek pozez artu dituzten esegesi lan bikaiñak agertu zaizkigu.

Protestantismo jatorrak bai Eliza katolikoak amatzat ezagutzen dute Andra Maria. Ez dago umezurtzik. Alabaiñan seme bat Amaren etxetik aldegiña dabil, berriz nola itzuli asma nairik. Egunen batean alkar-tuko gera berriro alkar besarkatzearen pozez, Amaren babespean, Jaunaren ataria ospatzeko. Zergatik, Lutero-k ikusten zue-
nez, "Jesus gurea bada, ura dagon tokian egon bear dugu, eta arek duena gurea da, eta aren ama gure ama".